

Genero-desberdintasuna eta indarkeria sexista: aurre egin beharreko arazoa

NORMA VÁZQUEZ



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Aurkibidea

GENERO-DESBERDINTASUNA ETA INDARKERIA SEXISTA: AURRE EGIN BEHARREKO ARAZOA

Norma Vázquez	3
Indarkeria gizonen arazoa da baina emakumeok jasaten dugu	4
Arazoaren izendapena: ikuspegi kontua	8
<i>Indarkeria sexista edo indarkeria matxista</i>	<i>10</i>
<i>Genero-indarkeria.....</i>	<i>10</i>
<i>Indarkeria feminizida edo femizida.....</i>	<i>11</i>
Indarkeria sexistaren tokia gaur egun	12
Indarkeria sexistaren aurpegiak.....	15
Indarkeria sexistaren modu zehatz bat: sexu-jazarpena lanean.....	20
Indarkeria sexistari aurre egiteko alternatibak.....	23



Genero-desberdintasuna eta indarkeria sexista: aurre egin beharreko arazoa

3

Norma Vázquez

Hainbat ideia bildu ditut artikulu hau idazteko, ez dira ideia berriak ezta denak nireak ere, baina biltzen eta antolatzen ahalegindu naiz irakurle bizi-ki interesgarriekin eztabaidatzeko; sindikalistekin, hain zuzen. Desoreka eta desberdintasunez beteriko sistema baten kontra borrokatu eta mugitu izan dira betidanik sindikalistak, hala emakumeak nola gizonak; erresistentziaren aurpegia izan dira historikoki, eta haien aldarrikapenak eta lorpenak guztiontzako lorpen eta onura izan dira azkenerako.

Sindikalistek beti jakin dute klase-borroka langoa hitz egiten eta argi izan dute zer aldetan dauden eta noren alde egin behar duten. Nik beste borroka batetik idazten dut, beste esperientzia batzuk oinarrian ditudala, eta indarrak biltzea ezinbestekoa dela sinetsita, guztion artean gizar-te bidezkoagoa eraikiko badugu.

Emakumeak gogor ari dira borrokatzen gizonen bizi-baldintza eta aukera berak lortzeko eta, bereziki, indarkeria modu bat desagerrarazteko, gizonezkoen kolektiboari historikoki eman zaion botere sozial bidegabeak sorturiko indarkeria, hain zuzen, eta borroka horretatik eratorria da artikulu hau hezurmamitzen duen lengoaia.

Gaurkotasan handiagoko beste borroka batetik ari naiz orrialde hauek idazten, borroka eztabaidagarriago batetik, nahi bada. Alabaina, borroka horrek eremu publikoan eta guztien begi bistan jarri du eremu pribatura zokoratu nahi zen arazo bat; klase, muga nazional, erlijio eta adin guztiak gainditzen dituen arazo bat. Datu eztabaidaezinak hartu ditut oinarri: 15 segundoan behin, munduko tokiren batean, emakume batek erasoren bat

Norma Vázquez psikologoa eta psicoterapeuta. Feminista da izateko aukera eduki zuenetik, eta 1982 emakumeekin dabil lanean, bereziki indarkeria sexistaren biktima izan direnekin. Egun, Sortzen-eko zuzendaria, indarkeria sexistaren inguruko auzi-etan eta ahalduntze gaietan espezializatutako aholkularitza.

jasaten du; emakumeen %70ek indarkeria psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa edo sexuala jasaten du bizitzan zehar, gizonaek eta gehien-gehienetan senarrek edo bikotekideek eragindako indarkeria; eta indarkeria sexistak emakume gehiago hiltzen du munduan minbiziak, malariak, trafiko-istripuek eta gerrek batera baino. Datuak, gainera, urriak dira beti eta ez dira inolaz ere benetako egoera adieraztera iristen.

Datuetan oinarrituta, gainera, ezin da jakin zenbatekoa den bortxazko egoerak bizi dituzten emakumeen sufrimendua edota baldintza horietan hazten ari diren neska-mutilena, ezta arazo horrek gizarte osoan eragiten duen kostu emozionala ere. Indarkeriak aurpegi, izen, hurbileko egoerak... ditu. Indarkeria gure bizitzatik desagerrarazteko borroka horretan ez da aski egiturazko indarkeriaren aurkako adierazpenak egitea; horrez gain, premiazkoa da pertsonekin konpromisoa zehatzak hartzea, eta bereziki emakumeekin, gaur egun emakumeak baitira indarkeria sexista horren biktima nagusiak.

Indarkeria gizonen arazoa da baina emakumeok jasaten dugu

Gure inguruan, gero eta maizago gainera, gure bizitza, gorputza, pertsonaren osotasuna edota pentsatzeko eta mugitzeko askatasuna arriskuan jar dezaketen hainbat egoera jasateko arriskua dugu emakumeok; areago, egoera horiek ikusi eta bizi egiten ditugu hainbatetan.

Egoera horiek, batzuetan, bortxazko eraso fisikoen bidez adierazten dira, baina gehien-gehienetan, aldiz, emakumeak gutxietsi, gaitzetsi eta umiliatzeko hitzen bidez, haiek kontrolatzeko jokabideen bidez eta min psikologikoa eragiten duten harreman asimetricoen bidez. Gertaera horiek egunerokoak dira, baina ez dira egunkarien azaletan agertzen, non eta ez diren muturrekoak; hau da, ez bada norbait hiltzen edo hilzorian uzten.

Hainbat dira egintza eta jokabide horien erantzuleak: bikotekideak, senarrak, bizikideak, amoranteak, bikotekide ohiak, bizikide izandakoak, amorante ohiak, anaiak, aitak, lagunak, nagusiak, lankideak, ezezagunak... Eta jokabide horien asmoa eta ondorioa hauxe baino ez da: gizonen emakumeen gain duten boterea eta kontrola adieraztea.

Emakume eta gizonengan kontrako jokabideak eta sentimenduak garatzen direla onartzen duen generozko ikuspegiaren gizarteratzea da

arriskuko faktoreetako bat indarkeriazko egoera horietan. Batzuek besteen gain eragiten duten mendekotasunezko harremanetan eta alde femeninoaren gutxieste kulturalen du oinarria ikuspegi horrek, eta, orobat, harreman horiek berritzea eragiten du.

Generoen sozializazio hori prozesu kultural konplexu baten ondoren hezurmamitu da; hots, ez da sexuen arteko desberdintasun biologikoen ondorio soila izan. Eta generoen sozializazio horren ondorioz, genero-indarkeria esan zaio gizonen emakumeen aurka eragindako indarkeriari¹.

Arazo horretan egitura sozial eta sinbolikoek dute zerikusia, egitura horiek generoaren arabeko sozializazio molde estereotipatuak eratzen dituzten heinean, baina hori horrela izanik ere, argi utzi nahi dut indarkeriaren erantzukizuna indarkeria eragiten duenarena dela, eta, nahiz eta bikoteko edo familiako zenbait harreman-dinamika gutxiago edo gehiago ulertu, ezin dugu erantzukizuna erdibana banatu. Gizonen kolektiboarena da arazoa, kultura batzuek eta besteek historian zehar emaniko pribilegio bidegabeak direla eta ez direla, baita oldarkortasunaren erabilera eta oldarkortasun horrek emakumeekiko harreman afektiboetan dituen adierazpena dela eta ez dela. Emakumeen kolektiboak beste arazo bat dauka: ez du bere burua babesten, ez du bere burua ezagutzen, ez eta defendatzen ere eta bere interesak eta beharizanak gizonekin eraturako harreman afektiboetan galtzen ditu. Ordea, gizarteko talde bakoitzak arazo desberdinak ditu eta hori onartzea lagungarri izango da nork bere gabezien ardurara har dezan eta gizarte-politika egokiak eta diskurtso kultural argiak sor daitezten.

Berritot: indarkeria gizonen arazoa da baina emakumeek jasaten dugu. Beraiek dute kontrola eta erabakitzen dute eraso egitea. Egia da maskulinitate hegemonikoak indarkeriazko osagai nabarmenak dituela, baina egia da, orobat, milaka emakumeek jakin dutela alde batera uzten feminitateari betidanik lotu izan zaizkion arauak eta ez dutela onartu mendean egotea eta, gisa berean, zenbait gizonen, gutxi oraindik ere, baztertu egiten dutela emandako indarkeria hori. Beraz, eraso egiten dutenek ahal dutelako eta horrela erabakitzen dutelako egiten dute eraso, nahiz eta gero emakumeen probokazioa eta era horretako argudioak erabili aitz-

¹ Arazo hori izendatzeko kontzeptu ugari buruz eta izendapen horrek sortutako eztabaidari buruz ariko naiz hurrengo atalean.

kiatzat. Gizonek uste dute kolpe bat, irain bat, gaitzespen bat edo mehatxu bat aski izan daitekeela egoera gatazkatsu bat konpontzeko edo obedituak izateko (eta lortu egiten dute, gainera, beren helburua, indarkeriaren edo indarkeria erabiltzeko mehatxuaren ondorioetako bat baita jokabide baten berehalako kontrola); mendez mendez gizonak pentsatu izan dute eskubidea dutela beren bikoteen eta, oro har, emakumeen bizitzaren eta heriotzaren gainean erabakitzeke.

Emakume batekin bikote-harremana izan eta haren kontra indarkeria erabiltzen duten gizonak uste dute emakumearen ardura dela gizonaren jokabideak kontrolatzea; gizonak gogoko duen moduan tratatzen jakitea; gizonak pazientzia gal ez dezan ahalegina egitea; gizona galtzen ari denean emakumea gelditzea; gizona haserretzen denean hura lasaiaraztea; gizonak zer pentsatzen duen igartzea; gizona sentitzen ari denari antzematea; gizonak emakumearen aurka egin ditzakeen erasoei aurre hartzea...

Nork bere burua kontrolatu ezin duen gizonaren irudia, “berez” oldarkorra dela-eta “bere sena” mendean hartu ezin duen gizonaren irudi hori, maskulinitatearen estereotipo zabalduenetakoa da. Zorionez, gero eta gizon gehiagok jartzen du auzitan pertzepzio hori, baina oraindik ere uste hori gailendu egiten da imajinario kolektiboan eta horri heltzen diote bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek.

Maskulinitatearen estereotipo hori arriskuko faktorea da: emakume eta haurrentzat; beste gizon batzuekiko harremanean; gizonentzat beraienez. Gizonena da beren kontrol ezaren ardura inori tratatu txarrak eragiten dizkiotenean eta gizonena da, orobat, maskulinitatearen eredu hori auzitan jarri eta horren kontra jokabide egokiak proposatzeko ardura eta zeregina.

Nik ez dut datu fidagarriak esateko emakumeei tratatu txarrak eragiten dizkieten gizonak gutxiengoa direla. Uste dut, hori bai, bikotekideak hiltzen dituzten gizonak gutxiengoa direla, zorionez; eta uste dut, orobat, emakumei, bikotekideei zein besteei, tratatu txar fisikoak eragiten dizkieten gizonen ehunekoa ere oso txikia dela. Baina zalantza handiak ditut bikotekideen gain indarkeria psikologikoa (oldarkortasun aktibo edo pasibo modura) erabiltzen duten gizonak gutxiengo diren, eta, aldiz, uste dut gehiengo direla beren posizio pribilegiatua baliatzen dutenak harreman afektiboak duten emakumeen gain (ama, arreba, lagun, bikotekide...) kontrola ezartzeko, beharbada kontrol normalizatua eta oharkabekoa baina, aldi berean,

kontrol nabarmena. Hori bai, uste sendoa dut genero bereko kideen erasoan aurrean isiltasun konplizea gordetzen duten gizonak gehiago direla, eta, aldiz, erabateko ziurtasuna dut gizonen ehuneko txiki-txiki bat baino ez dela ausartzen indarkeria sexistaren aurka argi eta garbi borrokatzera.

Bestalde, nago emakume guztiok jasan dezakegula indarkeria sexistaren bat, ez halabeharrez bikote-harremanean, baina ez dago zalantzarik emakume bakoitzak bere erara bizi duela arrisku edo errealitate hori. Batzuk aukera dugu geure burua beste batzuek baino hobeto babesteko, arrisku horren kontzientziak neurriak hartzera behartzen gaituelako; hainbat emakumek ez dute aukerarik beren burua nola babes dezaketen pentsatzeko ere, eta beste batzuek ukatu egiten dute indarkeria dagoenik. Emakume bakoitzak egoera edo arrisku hori bere modura bizitzeak ez du esan nahi, ordea, indarkeria ez dagoenik edo emakumeek arrisku hori ez dutenik; izan ere, sexua eta sexuaren adierazpen sinbolikoa bera da arriskuko faktorea, adierazpen sinboliko horretan, besteak beste, beldurra ageri delako aurrez idatzitako gidoi baten modura; hau da, beldurra eragin dezakeen bizipenaren aurretik ere hor da beldurra. Alabaina, emakumeen erantzun askotariko horien ondorioz, zaila da pertzepzio eta kontzientzia horiek guztiak bateratzeko alternatibarik sortzea. Izan ere, berez, emakume bakoitzaren esperientzia eta testuinguru familiar eta sozialeko hainbat eta hainbat elementuren araberakoak dira kontzientzia eta pertzepzio horiek guztiak.

Bikote-harremanean tratu txarrak jasaten dituzten emakume askok pentsatzen dute errua beraiena dela edo, ez bada ere, beraiek dutela egoera hori geldiarazteko ardura; izan ere, uste dute (uste okerra, bistan da) gai direla edozein pertsona aldatzeko, baita gizonezko heldu bat ere; obligazioa dutela jasateko, ulertzeko, itzaroteko, berriro saiatzeko, beste aukera bat emateko, justifikatzeko, isiltzeko, haserrea pilatzeko eta, areago, ez sentitzeko, beste jokabide batzuk probatzeko, mendean jartzeko, ahal dutela pentsatzen jarraitzeko...

Maitasunagatik, pairamenagatik eta bere desirei uko egiteagatik hurbileko pertsonak aldarazteko gai den emakumearen irudiak indar handia du emakumeen beren artean eta, jakina, gizarte osoan. Urteak dira mugimendu feministak auzitan jarri zuela feminitatearen estereotipo hori, baina gaur egun oraindik ere indarrean da. "Jokabide zintzoaren" eredu horren arabera, emakumeek gai izan behar dute inguruko beharrian emozional

guztiei erantzuteko (ahalguztidun bihurtzeraino beste pertsonetikiko harremanean), eta, horretarako, uko egin behar diete beren sentimenduei eta, azkenerako, ez dira gai izaten sentimendu horiek gobernatzeko (ezintasuna beren buruarekiko harremanean).

Estereotipo horren eraginez, emakumeek ez dute beren burua ulertzen, ez dituzte beren sentimenduak bereizten, nahasita sentitzen dira eta lehen kolpea, bigarrena eta hirugarrena eta... pairatzen dute, urte batean, bitan, hirutan... hogeitan, hogeita bostean... Hori guztia gizarteak emakumeengandik espero duena betetzeko; izan ere, pertzepzio sozial horren arabera, emakume zintzoak izango badira, ez dute kexatu behar, pairatu eta etsi egin behar dute eta harremana aldatzeko eginahalak eta bi egin arren gaizki sentitzen badira, errua berek dute. Izan ere, emakumeak nahi izatera... dena beste era batekoa izango litzateke.

Maskulinitatearen eta feminitatearen estereotipo horiek bizkar gainean dituztela ekiten diote gizonek eta emakumeek bikotea eta familia osatzeko egingizunari. Ondorioak? Bat, indarkeria esplizitua erabiltzeko justifikazioa; beste bat, gizon eta emakumeen estereotipo horiek apurtzeko ezintasunak sortzen duen sufrimendu ezkutua, harremanei aldaketarik gabe eusteko presio sozialak, errebeldiari alternatibarik ez ikusteak, bizitzako gatazkak eta harreman pertsonalak konpontzeko tresna gutxi izateak sor dezakeen pairamen isila.

Arazoaren izendapena: ikuspegi kontua

Gaiari buruzko ñabardurak zehaztu aurretik, mugimendu feministak emakumeen aurkako indarkeria espezifikokoari buruz duela 30 urtetik hona egini niko analisisian ageri diren kointzidentzia batzuk aipatu nahi ditut lehenbizi; hots, batzen gaituzten zenbait alderdi orokor. Errealitatearekin kontrastatu gabe egon arren oso zabalduta dauden aurreiritzi sozial batzuei erantzuteko premiarekin loturik daude alderdi horietako asko. Hauek dira:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren eraginez emakume asko hil da eta oraindik hiltzen ari da munduan.

Baieztapen hori, funtsezkoa 1970eko hamarkadan mugimendu feminista abiatu zenetik, jarrera atzerakoieni aurre egiteko sortua da; izan ere, iritzi atzerakoi horiek ukatu egiten zuten –eta oraino ukatu egiten dute– emaku-

meen aurkako indarkeria arazo soziala denik eta fenomeno isolatua dela azpimarratzen dute behin eta berriro.

- Indarkeriaren adierazpenak askotarikoak dira eta bakoitzak esanahi bat dauka. Esaterako, kultura jakin batek emakume eta gizonen arteko harremanak nola ulertzen dituen adierazten dute, bai eta emakumeek feminitateari betidanik eman izan zaion rola apurtzen dutelarik nola zigortzen dituen ere.

Oso zabaldutako ideia da indarkeria “kasuak” eta zehazki horien adierazpen bortitzenak (hilketak) arazo pertsonalen ondorio direla; hau da, gizon batzuek (beren maskulinitatea jaso eta garatzen duten testuinguru historiko eta sozialetik bakarturik) kontrola galtzen dutela eta ezin izaten dutela beren “pasioa” menderatu, aurrez emakumeen probokazioa jasan ondoren betiere. Bada, goran aipatutako aldarri feministak aurre egiten dio ideia horri.

- Indarkeria hori ez da harreman pertsonaletan oinarritzen eta bana-koen artean gertatzen bada ere, genero-desberdintasunaren ondorioz gertatzen da.

Gaiari buruzko legedi gehienetan hartu izan da kontuan ideia hori, baina, hala ere, ez da gizarte osoaren adostasuna lortzera iritsi, oraindik ere arazo pertsonalak jotzen direlako indarkeria horren eragile nagusi: alkoholismoa, toxikomaniak, buruko gaixotasunak, oldarkortasuna mendearen hartu ezina... Hainbat gizona zozkoren bereizgarri dira aipatutako ezaugarri horiek, bai eta, hainbat emakumezkoenak ere, diotenez. Analisi handirik gabe egiten dira, ordea, baieztapen horiek. Genero-desberdintasuna indarkeriaren eragile eta arrazoitzat jotzeak ez ditu herritar gehienak erabat gogobetetzen, eta askotan ezta biktimekin eta erasotzaileekin lan egiten duten pertsonak ere. Aldiz, “arrazoi” partikularrak, bai, ontzat ematen dituzte herritar gehienek.

Analisi feministak hasierako haietan mantendu dira denbora askoan, aldatu gabe; izan ere, premia handiagokoa izan da indarkeria sexistaren fenomenoaz azaldu eta horri buruzko sinesmen orokor eta okerre aurre egiteko beste kultura bat sortzea. Eta batzuetan nekagarria eta errepikakorra iruditu arren, mugimendu feministaren 30 urtetik gorako historian behin eta berriro errepikatu dira aurreko baieztapenak, eta seguru asko lan horretan jarraitu beharko da aurrerantzean ere, gaiari azalpen sozial bat emateko bide horretan aurrera egingo badugu.

Feminismoaren eskutik ikasi dugu errealitate bat izendatzeak ikusarazi egiten duela errealitate hori. Horrenbestez, aspaldikoa da eztabaida eta, itxura batean, amaierarik gabea: nola izendatu behar dugu arazo hori?

Proposamenak askotarikoak izan dira: batzuek onarpen handiagoa izan dute, beste batzuek egoera nazionaleri erantzun diote, beste zenbaiten erakundeen onespina jaso dute eta badira ia oharkabean pasa direnak ere.

Emakumeen aurkako indarkeria kontzeptu deskribatzailea eta oso erabilia da. Egoera bizi duten subjektuetan egiten du azpimarra formula horrek. Kontzeptu deskribatzaile den aldetik, neutroagoa begitantzen da, baina badira zenbait zailtasun kontzeptu horren inguruan; izan ere, emakumeok jasaten dugun indarkeria ororen iturria ez da genero-desberdintasuna. Alabaina, erabiliaren erabiliz deskribapen hutsa izatetik erabilera politikoko kontzeptu izatera iritsi da.

Indarkeria sexista edo indarkeria matxista

Kontzeptu analitikoagoak dira deskribatzaileak bainoago. Egoera hori eragiten duen arrazoian egiten dute azpimarra, sexismoan edo matxismoan, eta femeninoa eta emakumea gutxiesteko eta maskulinoaren nagusitasuna goratzeko jarrera adierazten dute. Mugimendu feministak erabili du nagusiki kontzeptu hori.

Genero-indarkeria

Hau ere kontzeptu analitikoa da, aurrekoen antzekoa, baina honen erabilera eztabaidagarriagoa izan da. Jatorri akademikoagoa du eta modu zabalean hartu dute aintzat erakundeek; hala, herrialde askotako legedian jaso da, baita nazioarteko erakundeek onartutako hainbat dokumentutan ere. Genero kontzeptuak esanahi asko ditu eta hedapen zabala du. Horren ondorioz, hasiera batean genero-indarkeria kontzeptuari eman zitzaion interpretazioaren aldean beste interpretazio asko sortu dira. Hasiera hartan, gizarte honetan mendeko generokoak izateagatik emakumeek jasaten duten indarkeria izendatzeko erabili zen termino hori.

Genero kontzeptuak, beste adiera batzuen artean, pertsonen (emakume eta gizonen) identitatearen ezaugarri bat adierazten du eta, horrenbestez, zenbaitetan etxeko edo familia barneko indarkeria izendatzeko ere

erabili izan da kontzeptu hori, bereizketarik egin gabe; hots, sexua ez baikik eta familia-harremana gehiago azpimarratzen duen indarkeriaz hitz egiteko.

Espainiako Estatuan kontzeptu horrek nahasmena sortu du; izan ere, 2004an onaturiko Genero-indarkeriaren aurkako Lege Integralak bikote-harreman afektiboa duten edo izan duten gizon eta emakume baten artean gertatutako indarkeria definitzen du formulazio horren bidez, eta baztertu egiten ditu genero arrazoiak direla medio emakumeek jasaten dituzten beste indarkeria-modu batzuk. Horrek muturreko egoerak sortu ditu: esaterako, emakume bat bortxatu eta hiltzea ezin izan da lege horren bidez epaitu biktimaren eta hiltzailearen artean ez zegoelako harreman afektiborik.

Indarkeria feminizida edo femizida

Latinoamerikan dute hedapen handiagoa kontzeptu horiek eta azken-azkenean emakume baten hilketa eragin duen indarkeria jarraitua adierazten dute. Hilketa edo gaztelaniazko homicidio kontzeptua femeninora bihurturik, indarkeria-modu jakin bat definitzeko erabili izan da kontzeptu hori:

- Emakumea nortasunik gabe utzi izana azpimarratzen duen emakumeen aurkako indarkeria, hain zuzen; hau da, biktimaren eta erasotzailearen artean ez dago erlazorik eta azken horrek irudi bati egiten dio eraso eta ez pertsona bati. Alde horretatik, beste fenomeno batzuekin parekatzen da, hala nola genozidioarekin.
- Indarkeriaren ikuspegi analitikoa. Latinoamerikako legedi batzuetan emakumeen aurkako genero-indarkeriaren muturreko moduari esaten zaio indarkeria feminizida. Indarkeria hori hainbat jarrera misoginoz osaturik dago.

Etxeko indarkeria (edo etxe barneko tratu txarrak), ezkontza barneko indarkeria edo familia barnekoa formulazioak asko erabili ziren bere garaian, baita mugimendu feministaren aldetik ere, baina gaur egun indarkeria horren adierazpenak edo moduak definitzeko erabiltzen dira gehiago. Formulazio horietako batzuk legedi espezifikotik mamitu dira eta hortik nahasketak sortu dira errealitate zehatz bat arazo orokor batekin nahasi delako.

Gure testuinguruan, etxeko terrorismoa aipatu izan dugu hautu politiko modura, indarkeria sexista terrorismoa bezain arazo larria dela azpimarratzeko.

Bistan denez, arazo hori izendatzeko erabiltzen den izenak ikusmolde bat adierazten du eta eztabaida pizten, eta eztabaidarik garrantzitsuena ez bada ere, erakunde feministek indar asko jarri izan dute eta jartzen dute oraino izendapenari buruzko debate horretan. Hauxe da, nire iritziz, izenaren gaineko eztabaida horren mamia: aukera dagoela kontzeptu zabal eta zehatz bat sortzeko, batez ere zenbait jarrera sistematizatzeko eta delitu bihurtzeko lege-proposamenak egin behar direnean, bai zehaztasuna eta bai koherentzia, bi-biak, oso garrantzitsuak direlako lege-proposamena horiek egiterakoan. Alde horretatik, ikusi dugu nola kontzeptu teorikoak, delitu modura zehazten direlarik, nahasketak sortzen direla, eta horrek ondorio garrantzitsuak eragiten dituela, hala maila sinbolikoan nola instrumentalean.

Zehaztu nahi dut, azkenik, kontzeptualizazioari buruzko eztabaida horretan, mugimendu feministaz gain beste hainbat mugimendu sozialek eta erakundeek ere esku hartzen dutela eta, batzuetan, beren ikuskeratik abiatuta, aberastu egiten dutela eztabaida hori. Alabaina, zenbait kontzeptu hartu eta horien eduki feminista indargabetu ere egin dezakete erakunde eta mugimendu horiek, ia ezagutezin bihurtzeraino. Horrela gertatzen da, esaterako, genero-indarkeria kontzeptuarekin: berez, mugimendu feministak sortu zuen termino hori, baina zenbait testuingurutan analisi feministatik urrundu egiten da eta kontzeptu partzial eta nahasi bihurtzen da.

Indarkeria sexistaren tokia gaur egun

Izenaz harago, definizio batzuetan eta besteetan bada funtsezko kontu bat: indarkeria horren eta emakumeen bazterketaren artean sortzen den lotura, hain zuzen. Indarkeria (sexista, generokoa edo emakumeen aurkako) esan diezaiokegu emakumeen bazterketa mota orori? Zenbait korrante feministak baietz dio, bazterketa oro indarkeria dela. Ni bat nator desberdintasun guztiek bortxazko egoerak sor ditzakeela esaten duen ideia-

rekin, baina, nolana ere, bi kontzeptuak sinonimo modura erabiliz gero, bi-biek galdu egiten dute analisirako erabilgarritasuna.

Genero-desberdintasunaren arloan gaur egungo egoera ez da duela hogeita hamar urteko bera. Ezin dugu ukatu, neurri handi batean borroka feministari esker izan delako gainera, gaur egun gizarte askotan aurrerapauso nabarmenak izan direla gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean; emakume askok eta askok autonomia-maila handia eta erabakitze ahalmena aldarrikatzeaz gain izan badutela ahalmen hori, eta bizi diren gizarteetan legeek ez dutela zilegi eta legezko jotzen ez bazterketa ezta indarkeria ere, nahiz eta zilegitasuna ez izateak ez duen gero lotura zuzenik eguneroko egoerarekin.

Zalantzarik gabe hezkuntzaren arloan emakumeak askoz egoera hobean gaude gaur egun gure amen belaunaldikoak baino; lan munduan, ordea, gizonetik aldeak nabarmenak dira oraindik, eta eremu horretan zeregin handia dugu, baita erabaki politikoen eremuan ere. Familiarteko harremanetan badira aldaketa txikiak, eta pertsonen arteko harremanetan ere bai, nahiz eta askoz txikiagoak izan; izan ere, harreman pertsonaletan, sexuen sozializazioa eta aurreikuspenak direla medio, desberdintasuneko arrakalak azaleratzen dira, gure aurreko belaunaldian zeuden artesien nahiko antzekoak.

Gizarteko sektore askoren iritziz, feminismoak desberdintasunari buruz egiten duen diskurtsoa (hots, desberdintasuna indarkeriarako arrazoitzat jotzea) erabilgarria da Latinoamerikako, Afrikako edo beste geografia-eremu batzuetako egoera aztertze, baina ez Europako egoera analizatzeko. Sektore horien arabera feminismoaren analisi hori baliagarria da adin batetik gorako emakumeei gertatzen zaiena azaltzeko, baina ez gazteen bizipenak azaltzeko, gazteek feminismoaren aurrerapenak jaso dituztelako eta indarkeria galarazteko eragozpen gutxiago dituztelako edo eragozpenik batere ez dutelako... Finean, argudio feministak, nahiz eta diskurtso ofizialetan gero eta gehiago hartzen diren aintzat, oso urrun daude herritarren kontzientziak eta bihotzak gidatuko dituen kultura-eredu izate-tik.

Nire ustez argudio horiek errealitate gordina ukatzeko mekanismoak dira: berdintasuna lortzeko bide horretan beharbada beharrezkoak izan daitezke “gehi zero” erako konponbideak emakume eta gizonen arteko gatazketan; hau da, desberdintasunaren artesi horiek murrizten direlarik

beharrezkoa izan daiteke batzuek eta besteek berdin ez irabaztea. Emakumeok boterean, autonomian eta askatasunean irabazten dugun neurrian, gizonezko asko ez dira pozten horrek harreman zuzenagoak ekarriko dituelako; areago, askok eginahala egiten dute kontrola ez galtzeko eta indarkeria-dosi handiagoekin zigortzen dute emakumeen autonomia.

Kontuan hartu behar dugu indarkeria sinbolikoko testuinguru batean bizi garela eta indarkeria sinboliko horrek adierazpide bortitzak eta leunak dituela, eta, alde horretatik, niri iritzia da gizonen indar fisiko eta sinbolikoaren erabilerak edo erabiltzeko mehatxuak lagundu egin dezake bereizten zer den bortxazko egoera bat eta zer den bazterketa. Aldi berean, gai izan behar dugu indarkeria hauek bereizteko: jokabide isolatu moduan adierazten denean, testuinguru baten bereizgarria denean eta harreman-modu bat denean.

Labur-labur azalduko ditut hiru indarkeria modu horiek:

Indarkeria testuinguru modura. Indarkeria erlazionatzeko modu zehatz eta sinboliko bat da gure bizitzetan; herrialdeen artean, adibidez. Gerrek, giza eskubideen urratze sistematikoak, tratu krudelek (heriotza-zigorra barne dela), jokabide horien aurreko zigorgabetasunak, horrek guztiak testuinguru bat ehuntzen dute eta hor dagoen indarkeria ez zaigu arrotz egiten emakumeoi. Jasan egiten dugu eta eragin, hainbat botere eta gauzatze mailatan, gizakiok sortzen ditugun harreman sozialen barruan.

Gure gizarteetan indarkeria hausnarketa politikoen bidez legitimatzen da eta hala, orekak eta azalpenak direla medio, sarri askotan, indargabetzen ari da indarkeriaren erabilera zigortu egin behar delako sinesmen etikoa, indarkeriak edozein adierazpen hartzen duela ere.

Indarkeria jokabide modura. Emakumeok, gizonek, gazteek, haurrek, adinekoek, ezintasunen bat dutenek, pertsona guztiek jokabide oldarkorak izan ditzakegu noizbait gure bizitzan. Etsipena eta frustrazioa adierazteko modua da, erlazionatzeko edota komunikatzeko gure gaitasunak ez direlako egokienak. Jokabide oldarkor hori fisikoa edo psikologikoa izan daiteke, kontrolik gabe azalera daiteke baina oso noizean behin. Izan ere, jokabide-patroi bihurtuko balitz bestelako indarkeria-adierazpen bati buruz ariko ginateke; niri gehien azpimarratzea interesatzen zaidan indarkeria motari buruz.

Indarkeria botere-harreman modura. Harremana desorekatua den guztietan, goran dagoenak bere esku dauka indarkeria erabiltzeko ahalmena era horretara aginpide horri eusteko. Indarkeria hori edo indarkeria erabiltzeko mehatxua bestea mendean mantentzeko erabil dezake, baina baita matxinatzea zigortzeko ere.

Jakina, pertsonen arteko harremanetan, boterea ez duen aldeak ere izan ditzake bere burua babesteko, aurre egiteko, hausten saiatzeko adierazpen oldarkorrak; hau da, indarkeria erabil dezake jokabide modura.

Indarkeriak bi esanahi ditu genero-harremanetan:

- Gizonezkoen mehatxua emakumea mendean mantentzeko;
- Ezarritako araua urratzera ausartzen diren emakumeei ezarritako zigorra.

Une hauetan, hainbat gizartetan indarkeria gero eta maizago erabiltzen ari da bikote heterosexualen arteko harremanetan beren autonomia-maila areagotzeko adorea duten emakumeak zigortzeko; ikusi besterik ez dago bikotekideak hildako emakumeak edo erasotzailea salatzen dutenak banandutakoak direla, harremana haustea erabaki dutenak edo harremanaren norabidea moduren batera aldatu nahi izan dutenak.

Laburbilduz, nire iritziz, indarkeriazko testuinguru orokor batean eta bereziki indarkeria sinbolikoa sexista den ingurumarian gertatzen da emakumeen aurkako indarkeria. Gizonezkoen talde sozialak emakumeen talde sozialarekin erlazionatzeko duen modua da, oroz gain. Gizonezkoen taldea ez da homogenea baina oraindik bere esku dauka botere sinbolikoa eta zehatza; eta, orobat, emakumeen taldea ere ez da homogenea, baina oraindik ez dauka botererik bizitzaren hainbat alorretan. Harreman desorekatu horretan gizonek oraindik ere kontrola dute emakumeen gain, nahiz eta emakumeek beren burua babesteko, aurre egiteko eta are mendekua hartzeko jokabide oldarkorrak izan ditzaketen.

Indarkeria sexistaren aurpegiak

Indarkeria sexistak hainbat adierazpen ditu: hizkuntzaren molde sotiletatik hasi eta hilketaraino edota estatuen jazarpen sistematikoraino, Afganistanen talibanen gobernuaren agindupean gertatzen den moduan.

Eta adierazpen bakoitzak esanahi eta eragin desberdina du pertsona bakoitzarengan eta kultura bakoitzean.

Emakume eta gizonezkoen arteko harremanetan antzinatek datoz desberdintasunak eta indarkeria sexista ere desoreka horiek bezain aspaldikoa da. Hainbat mendetan gizonezkoek baliabide egokitzat hartu izan dute indarkeria beren irudiko haien zaintzapean eta ardurapean bizi ziren emakumeentzat desegokiak diren jarrerak kontrolatzeko; areago, interesaren eta maitasunaren frogatzat hartu izan da indarkeria. Mugimendu feminista garaikideak bultzatutako ekimen eta gogoetei zor zaio indarkeria hori garrantzizko arazo sozial eta politikotzat hartu izana.

1970eko hamarkadan erakunde feministek baino ez zuten jorratzen emakumeen aurkako indarkeria. Arazo horren inguruko isiltasuna hautsi nahi izan zuten eta horretarako hainbat lan eta ekimen bultzatu zituzten: gaia azaltzeko material eta lekukotza ugari landu eta bildu zuten; hainbat sentsibilizazio-kanpaina egin zituzten gizartea fenomenoaren larritasunaz kontzientziatzeko; eta tokiko eta nazioarteko sareak sortu zituzten estatuei eta munduko erakundeei presioa egiteko jokabide horiek zigortzeko legeak eta prebentzio-politikak ezar zituzten. Hala, 1980ko hamarkadan ia munduko herrialde guztietan baziren emakume taldeak genero-indarkeriaren aurkako borrokan. Latinoamerikan ehun proiektutik gora landu ziren arazo horren inguruan eta 1981. urtean Latinoamerikako eta Karibeko Lehen Topaketa Feministak Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Borroka Eguna izendatu zuen azaroaren 25a.

Osasunaren Munduko Erakundea (OME) izan zen nazioarteko lehen erakundea kezka hori bere egiten. Hala, Emakumearen Osasun Unitateari (1980an sortu zen unitate hori) agindu zion informazioa biltzeko arazoak zer-nolako eragina zuen eta emakumeen osasunean zenbateko inpaktua zuen jakite aldera. Ondoren, 1990eko hamarkadan, Nazio Batuen Erakundeak aintzat hartu zuen genero-indarkeriak zuen eragin soziala eta, feminismoaren elementu kontzeptualak eta teorikoak oinarritzat harturik, hainbat gomendio eta jarraibide landu zituen NBEko estatu kideek arazori aurre egiteko politikak eta mekanismoak sor zituzten. 1993an, "Emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko adierazpena" onartu zuen Batzar Nagusiak. Indarkeria honela definitzen du adierazpen horrek: "generoa dela kausa emakumeari min fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragin dion edo eragin diezaiokeen indarkeriazko ekintza oro, mehatxuak,

bortxa edo askatasuna bidegabe kentzea barne direla, ekintza horiek bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direla ere”. 1999an, berriz, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izendatu zuen azaroaren 25a.

Indarkeria sexistaren adierazpen desberdinak hainbat modutara aztertu dira azkeneko hiru hamarkada hauetan. 1970eko hamarkadako feminista estatubatuarrek aitzindariak izan ziren sexu-indarkeriari eta ezkontza barneko indarkeriari buruz indarrean ziren ideiak auzitan jartzen. Genero-indarkeriari buruz egin den azken kontzeptualizazioaren arabera “giza eskubideen arazoa” da indarkeria hori. Formulazio horren aldekoek indar handia egin zuten Vienan 1993. urtean izan zen Giza Eskubideen Munduko Biltzarra prestatzeko, eta adierazpen hau mamitzea lortu zuten: “Genero-indarkeria eta sexu-jazarpen eta –esplotazio modu guztiak, baita aurreiritzi kulturalen ondoriozkoak ere, ez dira bateragarriak pertsonen duintasunarekin eta, beraz, bertan behera utzi behar dira legezko neurrien bidez eta nazio barneko eta nazioarteko jardunaren bidez”.

Indarkeria sexistak hainbat adierazpide ditu, arazoa hainbat ikuspegi-tatik azter daiteke eta adierazpen mota bakoitzean alderdi batean egin daiteke azpimarra, baina mugimendu feministak, emakumeenak eta beste mugimendu sozialak, erakunde publikoak eta nazioarteko erakundeak bat datoz indarkeria modu horren hainbat ezaugarri zehazterakoan:

- Emakumeen bizitza-ziklo osoan ageri da.
- Kultura, arraza eta etnia, maila eta erlijio guztietan gertatzen da.
- Ondorio eta ondoez psikologiko handia sortzen du jasaten duten emakumeengan.
- Gaur egungo legediek babes mugatua eskaintzen diete emakumei indarkeria sexistaren adierazpen ugari eta askotarikoen aurrean.
- Estatu askok ez dute politika nazionalik arazoari aurre egiteko eta halakorik dutenean ez dute aurrekontu nahikorik politika horiek bideragarri egiteko.

Gainera, gero eta onartuago dago indarkeria sexistaren eragina areagotu egiten dela gatazka armatuak daudenean, eta bortxaketa masiboak “gerrako arma” moduan erabiltzen direla (soldadu irakiarrek gutxienez bost mila emakume kuwaitar bortxatu zituzten 1990ean, eta Bosniako gatazka etnikoetan, berriz, hogeita hamar milatik gora emakume bortxatu zituzten). Eta, aldi berean, bikote heterosexualetan ere indarkeria nabarmen area-

gotzen da: esaterako, 1999an serbiarrek Kosovori eraso egin ziotenean, emakume albanokosovarrek salatu zuten egoera politikoa zela medio senarrek sentitzen zuten amorrua beren aurka bihurtzen zela; hain zuzen, ezkontza barneko indarkeriaren salaketak nabarmen ugariagoak izan ziren telebistan audientzia handiena zen orduetan, albistegiek armada serbiararren aurrerapenen berri ematen zutenean.

Gaiari buruzko azken ekarpenak, nahiz eta oraindik ez oso ugariak izan, egile maskulunistek eta genero-indarkeriaren aurka mobilizatu diren gizon taldeek eginikoak dira. Talde horiek eragin handiagoa dute Amerikan eta haxe dute helburu behinena: emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan gizonezko gehienek duten jarrera pasiboa eta konplizea aldatzea eta indarkeriazko jokabideak dituen gizonaren eredua auzitan jartzea.

Garaia	Indarkeria mota
Jaio aurrekoa	Sexuaren araberako abortatze selektiboa; kolpeak haurdunaldian.
Umezaroa	Neska txikien hilketak; gehiegikeria fisiko eta emozionala; elikadura eta tratamendu medikua jasotzeko aukera gutxiago urtebetetik beherako neskontzat, sexu-gehiegikeria, bortxaketa.
Haurtzaroa	Neskatilak ezkonaraztea; mutilazio genitala; senitarteko eta arrotzen sexu-gehiegikeriak; elikadura eta tratamendu medikoa eskuratzeko aldeak neska eta mutilen artean; haurren prostituzioa.
Nerabezaroa	Ikaskide eta ezkongaien indarkeria; sexu-harreman behartuak arrazoi ekonomikoengatik; sexu-gehiegikeriak lanean; bortxaketa; sexu-jazarpena; behartutako prostituzioa.
Helduaroan	Bikotekide gizonezkoaren gehiegikeriak emakumeari; ezkontza barneko bortxaketa; dotearekin loturiko gehiegikeriak eta hilketak; ezkontza barneko hilketa; gehiegikeria psikologikoak; sexu-jazarpena lantokian; sexu-jazarpena; emakume ezinduei eragindako gehiegikeriak; bortxaketa "gerrako arma" modura.
Zahartzaroa	Alargunei eta adineko emakumeei eragindako gehiegikeriak; bortxaketa; tratu txarrak bikotean.

Iturria: Heise, Lori; Pitanguy, Jacqueline; Germain, Adrienne (1994), *Violencia contra la mujer: la carga oculta de salud*, Organización Panamericana de la Salud (OPS), Washington, D.C.

Indarkeria sexistaren modu zehatz bat: sexu-jazarpena lanean

Sexu-jazarpena ez da oraingo kontua, ez eta gaurkotasunezko albistea ere, nahiz eta milaka emakumek egunero jasaten duten. Indarkeria sexistaren beste adierazpen bat da sexu-jazarpena. Lan eremuan jazarpena jasaten duen pertsonak ez du jokabide hori batere gogoko. Hori da laneako sexu-jazarpenaren bereizgarria. Ez da batak zein besteak, biek, nahi duten jokabidea. Zailtasuna da pertsona bakoitzak erabaki behar duela zer jokabide iruditzen zaion onargarri eta norengandik datorren. Horrenbestez, jazarpena jasaten duen pertsonak duen pertzepzioaren arabera epaitu beharko litzateke jokabide hori; irizpide subjektiboa da.

Sexu-jazarpena botere kontua da: eragiten duenaren edo dutenen eta jasaten duenaren edo dutenen artean asimetria dagoenean sortzen da. Asimetria funtzionala (pertsona jakin batena beste baten aurka) eta sinbolikoa. Sexu-jazarpena jasateko arrisku askoz handiagoa dute emakumeek: lan munduan askoz leku apalagoa dute eta lan-baldintzak ere askoz okerragoak dituzte; lana eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzte, soldata txikiagoak, lana eta familia bateratzeko zailtasunak, lanean gora egiteko eragozpenak...

Emakumeen jazarpena bazterketarekin eta sexismo-arazoekin loturik dago estu-estu: "Gizonezkoek ez dute, hasiera batean, horrelako arazorik. Ez dute sexu-bazterketarekin loturiko arazorik, izan ere beren neurrira egini mundu batean dihardute. Sexu-objektu bihurtzeko kezkarik ez dute, emakume lankide askok ez bezala. Inork ez du zalantzan jartzen gizonezkoek ere sexuarekin zerikusia duten arazo edo egoera larriak jasaten ez dituztenik, baina lan munduan betetzen duten lekua dela eta (generoaren boterea), emakumeen aldean erabat beste egoera batean daude²".

Sexu-jazarpena jasateko arriskua lotuago dago jazarpena pairatzen duen emakumearen egoera ahularekin edo mendekotasun ekonomikorekin eta ez hainbeste haren itxura fisikoarekin. Hain zuzen, bereziki egoera ahulean daude honako emakume hauek: alargunak, bananduak, bereiztuak, ama ezkongabeak eta lesbianak, lan-merkatura iritsi berriak, lan-kontratu irregularrak dituztenak, nagusiki gizonezkoenak diren lanetan dihardutenak, ezintasunen bat duten emakumeak, gutxiengo etnikoetako kideak eta etorkinak.

² *Violencias contra las mujeres en el mundo: diversidad de miradas y estrategias para afrontarlas*. Entrepueblos, Bartzelona, 2008.

Alabaina, kontuan hartuta emakumeek eta gizonek gero eta maizago egiten dutela lan elkarrekin maila antzekoetan, sexu-jazarpeneko kasu ugari gertatzen dira hierarkia-maila berean, eta horrek erabat tenkatzen du laneko giroa eta ondoeza sortzen du emakumeengan. Eta nahiz eta sexu-jazarpena ez erabat laneko postuarekin loturik egon, jokabide horrek zuzenean edo zeharka eragin dezake emakumeen lan-produktibitatean, haren irudi profesionalean eta, azkenerako, gerta daiteke emakumeak lana utzi behar izatea ere.

Hain zuzen, estatistiken arabera lankideek eragindako sexu-jazarpenak ugariagoak dira, nahiz eta sexu-jazarpen larriak edo oso larriak biktima baino goragoko pertsonak eragindakoak izan³.

Azken batean, sexu-jazarpena emakumeen duintasunaren aurkako eraso da eta, horrenbestez, eragozpen handia emakumeek eta gizonek partekatzen duen lan-merkatuak modu egokian funtziona dezan.

Sexu-jazarpena zer den hobeto definitzeko, komeni da jokabide horren bi adierazpide ohikoenak ulertzea:

- **Sexu-xantaia modura:** jazarpen-mota horren arabera, eskatu gabeko sexu-jokabide hori onartzeak edo ukatzeak eragin zuzena du biktimak lana eskuratzerako garaian edota jazarpen hori jasaten duten emakumeen lan-baldintza, soldata, lanpostu igoera, lekualdatze, prestakuntza eta abarretan. Jazarpena eragiten duten pertsonak goragoko lanpostua dute hierarkian edo jazarpena jasaten duen pertsonaren gainean erabakiak hartzeko ahalmena dute.
- **Giroari loturiko sexu-jazarpena:** lanean emakumeen aurkako giroa sorrarazten du, emakumeak gutxieteko edo beldurtzeko giroa. Ez du berehalako eraginik lan-baldintzetan, jazarleak ez duelako horretarako ahalmenik. Horrelako egoera baten ondorioz sortzen den giroak zenbait arrisku eragiten ditu kaltetutako pertsonaren osasunean eta, horrenbestez, zeharkako ondorioak ditu haren lanean. Txisteek, aipamen jakin batzuek, genero-indarkeriari buruzko mespretxuzko adierazpenek... horrelakoek sortzen dute giro hori. Lankideek, goragokoek, mendekoek edo enpresarekin lotura duten hirugarrenek eragin dezakete sexu-jazarpen mota hori.

Jazarpenaren bi adierazpide horiek arrazoi edota helburu bera dute: sexua dela-eta emakume langileak baztertzea, iraintzea edo umiliatzea eta haie-

³ *El acoso sexual a las mujeres en el ámbito laboral: resumen de resultados.* Emakumearen Instituturako eginiko ikerketa. Madril, 2006.

taz abusatzea. Sexu-xantaiaren adierazpenak, berez, nabarmenagoak badira ere, jokabide hori salatzeak eragin zuzena izan dezake lanari eusteko edota lan-baldintzak mantentzeko garaian eta, horren ondorioz, gerta liteke emakumeek isilean gordetzea eta salatzeko zailtasunak izatea.

Giroari loturiko sexu-jazarpena, aldiz, lausoagoa izan daiteke. Gainera, emakumeen artean beharrezkoa da nolabaiteko kontzientzia eta gogoeta-maila jokabide horiek bereizteko, askotan ez baitira “une”, “lekuz kanpoko aipamen” edo “ondoriorik gabeko gaitzerizte” soilen ondorio izaten.

Bi kasuetan, norberak jokabide horiei buruz izan dezakeen pertzepzioak berebiziko garrantzia du lantokiak jarrera horien berri izan dezan. Lan-mundua betidanik gizonetzkoen eremua izan dela onartzeak eragin dezake batere desiragarriak ez diren zenbait jarrera eta jokabide normalizatzea.

Sexu-jazarpenaren adierazpen guztiak ez dira intentsitate berekoak. Pixkanaka ager daitezke eta era konbinatuan, emakumeen aurkako lan-giroa sortzeko edota haietako batzuen lanpostuaren kontra mehatxu zehatzak egiteko.

Laneko sexu-jazarpenaren beste arazoetako bat da gizartean ez dela azaleratzen, eta adierazpen larrienera edo muturrekoetara mugatzen dela. Horren ondorioz, jazarpen arineko kasuak ezkutuan geratzen dira edo txikiagotu egiten dira eta, hain zuzen, horien eraginez sortzen da pixkanaka giroari loturiko sexu-jazarpena. Eta giroko sexu-jazarpen horren ondorioz etortzen dira gero ondoezak, estresa, laneko bajak eta, oro har, emakume eta gizonen elkarrekin bete beharreko lanaren giroa txartzea.

Hori dela eta, lan-eremuan sexu-jazarpenari behar den moduan aurre egingo bazaio, beharrezkoa da arazoa ondo ulertzea, era horretara horrelako jokabiderik ez ametitzeko eta, gertatuz gero, garaiz atzemateko eta zigortzeko.

Indarkeria sexistari aurre egiteko alternatibak

Indarkeria sexistaren bizipenak askotarikoak dira eta emakume bakoitzak bere modura barneratzen du esperientzia hori; esaterako, bi emakumek oso era desberdinean baitara dezakete antzeko esperientzia eta emakume berak desberdin barnera dezake gertaera bera bizitzeko unean eta handik hiru urtera. Esperientzia landu ahala (edo ez) esanahia aldatu egiten da.

Hori dela eta, nire iritziz, emakume batek indarkeria sexista jasan duela onartzeak ez du esan nahi emakume horrek horretan geratu behar duenik,

esperientzia hori identitateko zeinu bihurtu behar duenik eta ezin duenik bitzta berregin horrelako bizipen baten ondoren. Bistan da, horretarako behar diren denbora eta baliabideak hainbat faktoreren arabera dira: zer-nolako izan den bizipena eta zenbat iraun duen, emakumearen historia pertsonala eta erlazioak zein diren, egoera horiei aurre egiteko zer tresna duen, jasotako laguntza, gertaerari buruz norberak eta ingurukoek eginitako interpretazioa, kontatzeko eta ulertua izateko aukera, etab.

Egoerak eta bizipenak askotarikoak izanik ere, arazoari aurre egiteko eta esku hartzeko bidea emakumeak beren ahalez jabetzea da, eta ez biktima bihurtzea. Ulertzen dugu krisi-uneak izaten direla eta horietan emakumeek laguntza handia beharko dutela, baina beste zenbait unetan, hutsegiteak hutsegite, eskuratutako gaitasunak jarri beharko dituzte frogan. Bide horretan guztian emakumeek ez dute aukera gehiago edo gutxiago izan behar laguntza jasotzeko, laguntza beti eman behar diegu, eta laguntzeko modu bat da beraiek batzuetan ikusi edo onartu ezin duten egoera bat planteatzea edo ikusaraztea.

Batzu-batzuek nahiago dituzte jarrera gogorrak eta irtenbide penalaren eta erasotzaileari zigor handiagoak ezartzearen alde egiten dute; beste zenbaitek, berriz, uste dute bide eta sistema horiek ez direla eraginkorrak eta irtenbide sozialago baten alde egiten dute. Era berean, zigorsisteman konfiantza handiagoa dutenek emakumeen salaketa jotzen dute beren estrategiaren ardatz arazoan esku hartu ahal izateko.

Ni neu indarkeria eragiten dutenak zigortzearen alde nago eta uste dut emakumeek salatu egin behar dituztela jasaten dituzten erasoak, baina, orobat, irtenbide penal hutsen eraginkortasuna ere eztabaidagarria delakoan nago. Era berean, iruditzen zait salaketak ez lukeela izan behar indarkeria jasaten duten emakumeei laguntza emateko giltza. Alabaina, salaketarik ez jartzeak are gutxiago izan beharko luke aitzakia erakundeek ez esku hartzeko eta emakume horiei laguntza ukatzeko.

Nabarmentzekoa da feminismoak indarkeriaren aurkako borrokan eginitako ibilbide luzeak hainbat lorpen garrantzitsu eskuratu dituela hainbat herrialdeetako legedietan eta jardunetan; genero-desberdintasuna zer den ulertzeko eta emakume eta gizonen artean bestelako oreka bat lortzeko mugarri izan dira lorpen horiek. Emakumeen aurkako indarkeria delitutzat hartzea mugarri garrantzitsua izan da XXI. mendean, aurreko mendean emakumeek botoa emateko eskubidea lortzea bezain garrantzitsua; izan ere, “bikotearen arazo pribatu”, “zenbait emakumeren arazo pertsonal”,

“gizon batzuen desoreka” izateari utzi eta gizarteak kondenatutako delitu bihurtu da indarkeria.

Aldiz, horrek era guztietako erreakzio sozialak eragin ditu. Batzuek, adibidez, sinesgarritasuna kendu nahi izan diote, bai arazoaren garrantziari baita arrazoiere eta ondorioen egiturazko analisiari ere. Hala, gero eta maizago entzuten dira horrelakoak: “emakumeek ere eragiten dituzte tratu txarrak” edo “gizonezkoek ere jasaten dituzte tratu txarrak” bertsioa. “Salaketa faltsuak” seinalatzea ere kezkatzeko moduan areagotu da eta beldur horrek agerian uzten du sektore maskulinoek eta ideologia patriarkalak nola babesten duten beren burua aurrerapauso horien aurrean.

Eta beraiek? Tratu txarrak eragiten dituztenak kontrolatzen dutenak, hiltzen dutenak, ezer esaten ez dutenak, noiz arte agertuko dira dimentsio itxuraldatu horretan? Bikotekideei eta inguruko emakumeei tratu txarrak eragin eta haiek kontrolpean dituzten gizonak ez dira maskulinitate gaixobera baten arabera jokatzera behartzen dituen sistema bidegabe baten biktimak, ez dira sekula bizilagun edo adiskidetzat imajinatuko ez genituzkeen munstroak ere, pertsona normalak dira, beste edozein gizon bezain normalak eguneroko beste jokabide batzuetan eta bizitzaren beste eremu batzuetan.

Entzun besterik ez dago zer esaten duten bizilagunek eraso baten berri jakiten dutenean: “harrigarria”, “nork pentsatuko zuen horrelakorik!”, “ezin dugu sinetsi”. Iduri du horrelakoak beti besteei gertatzen zaizkiela; zenbat eta urrunagokoa orduan eta sinesgarriagoa zaigula gertaera. Hemen, ingurune hurbilean, ezin du horrelakorik gertatu eta gertatuz gero, “normaletik” kanpoko gertaerak dira. Normalizazio hori egiten da beste muturrean ere, “jakina zen”, “etengabe entzuten ziren borrokak” esan bai, baina inork inoiz ezer egiten ez duenean, “ezin zelako jakin nola erantzungo zuen”. Guztiak dira kontu larriak eta guztiak borrokatu beharrekoak: tratu txarrak normalizat hartzea, ezer ez egitea eta erasotzailea normalizat ez hartzea.

Noiz izango dira gizonak arazo horren ardatz haiek izanik arazoaren eragile zuzenak? Hasieran nioen indarkeria gizonen arazoa dela baina emakumeok jasaten dugula, eta hori horrela bada, garaia da soilik biktimen egoera arintzeko irtenbideak bilatu ordeaz era guztietako politiketan pentsatzeko, era horretara gizarte desorekatu baten arazoa errotik desagerrarazteko, baita genero-harremanetan ere, eta garaia da, orobat, indarkeria sexistaren adierazpen oro geldiarazteko.
